

Krisialdia eta Lan Osasuna:

Krisia ez dadila aitzakia izan: Lana eta Osasuna defenda ditzagun

2008an Estatu Espainiarrean 620.000 lanpostu desagertu ziren (berritu gabeko 310.000 aldi baterako kontratu, 217.000 bidegabeko irazpen eta gainontzeko guztiak Enplegu-erregulazioko Espediente bitartez). Krisia lanpostu desagertuaren arrazoia edota aitzakia da. Eta egoera honek pertsonen osasunengan ondorioak ditu, bai lanpostua galdu dutenengan, bai edozein momentuan gal dezaketenengan baita mantentzen dutenengan ere.

Ordaindutako lanak bizirik irauten laguntzeaz aparte, independentzia ematen digu, estatusa, komunitateko kide aktibo bezala errekonozimendua, harreman sarea sortzeko ahalbideratzen gaitu eta baita gure eguneroko denbora egituratzen du ere. Lanak buruhaute handiak eman arren, langabezia dauden pertsonen lanean daudenak baino osasun orokor txarragoa dute. Langabeziak desoreka antsio-depresiboak sortzen ditu, non langabezia dagoenak familia mantendu edo diru gehien jartzen duena bada, desoreka hauek areagotzen diren. Ordaindutako lana bizitzan jokatzeko den rol bakarra ez bada eta laguntza ekonomiko egokiak medio, gaitza hauek arindu egiten dira. Gizarteak tradizionalki egiten duen bereizketak gizonari etxeko sostengatzaile nagusiaren papera ematen dio, modu horretan funtzio hau ezin badu bete behea jotzen du. Familiako ardurak izanda eta etxetik kanpo lana egiten duten emakumeek berriz, lan arloan zein familian paper desberdinak betetzen dituztenez, hauetako bat falta denean oreka handiagoa mantentzen dute.

Lana ez izatearen angustiak, hile bukaerara ez iristeak edo lana galtzeak antsietatea sortzen dute. Eta bide batez, alergiak, kardiopatiak, arterial hipertentsioa eta arazo muskulu-eskeletiko izateko arriskuak areagotzen dituzte. Eta, lurralde garatuetan arazo kardiobaskularrak heriotzako lehenengo arrazoia dela ezin dugu ahaztu. Gainera, zailtasun ekonomikoaren eraginez, dieta kaskartzen da, ariketa fisiko osasuntsua gutxitzen da eta tabako eta alkoholaren kontsumo konpulsiboa areagotzen da, osasun egoera orokorra okertuz. Baina estresa eta ziurgabetasun egoera honek baita bizitzako oinarrizko beste aspektuak ere afektatzen ditu: independizatzeko eta seme-alabak izateko adina atzeratu egiten da, haurdunaldian eta erditzeko momentuko arriskuak areagotuz. Familian zein bikote arteko harremanetan gatazkak sortzen dira eta trafikoko istripu kopurua handitu egiten da, hau lurralde garatuetan heriotzako bigarren arrazoia delarik.

Lanpostua galtzearen beldurrak jendea gaixorik egonda ere lanera joatera eragiten du, beste egoeretan onartuko ez lituzkeen arrisku-baldintzak onartuz edo inolako konpentsazio ekonomikorik gabe lan-ordutegia luzatzera behartuz. Oraindik lana mantentzen dutenentzako presioa areagotzen da. Langile murrizketa egon bada, askotan murriztu ez den lan bolumen handiagoari aurre egin behar diote gelditzen direnek. Eta egoera hau ez da bakarrik enpresa pribatuetan ematen, zerbitzu publikoek ere aurrekontu eta lanpostu izozketa jasotzen dute, gure gobernu neoliberalak beren errekurtsu guztiak banketxeak subentzionatzera edo azpiegitura handiak proiektatzera erabiltzen dituztelako.

Guzti honi prebentzio neurrietan inbertitzeko patronalek eta administrazioek duten erresistentzia handiagoa gehitu behar zaio. Puruak banketxeke billeteekin pizten ziren garaian, legeak markatzen zituen laneko arriskuak prebenitzeko oinarrizko neurriak aplikatzeari sistematikoki uko egin badiote, une hauetan, krisia aitzakia ezin hobea da gelditasunerako edota inboluziorako laneko baldintzetan. Jarduera ekonomikoaren beharpenak estatistikak makilatzen saiatzeko margen bat eman badieziaieken ere, egoera zer larria den demostratzen dituzten datuak oso esanguratsuak dira: 2008an industrian lana egiten zuten langileen kopuruak %2,5a behera egin zuen, baina istripu mortalak %7,1a handitu ziren. Eraikuntzan langile kopuruak %13,4a behera egin zuen, baina istripu mortalak bakarrik %6,7a jaitsi ziren.

Bizitzako babesa eta pertsonen segurtasuna enpresetako kontuen emaitzen gainetik egon behar dira. Berez, ez dago langileen osasuna edo bizitzaren galera justifikatzen duten arrazoi

ekonomikorik edo egoeraren arabera. Baina kontua da prebentzioa egitea errentagarriagoa izango litzatekeela, baita ekonomikoki ere. Ikerketa desberdinek adierazten dute istripu bat saihestu ditzaketen neurriek, istripu horrek suposatuko lituzkeen gastu materialak, pertsonalak eta orokorrak, baita enpresak ordaindu behar dituen isunak zein indemnizazioak baino 30 aldiz baxuagoa dela.

Krisialdia aukera bezala

Gero eta nabariagoa da krisi hau egoeraren arabera den zerbait baino gehiago dela, lana eta gizartea antolatzeke eraren porrotaren aurrean aurkitzen gara, pertsonak merkantzia, berezko baliorik ez duten pieza aldagarriak, baino ez diren, gizartearen antolaketaren porrota, alegia. Sistema hau, bai ikuspuntu etikotik bai sozial zein gizon-emakumetik eutsiezina da. Horregatik, langile guztiok aurre egin behar diogu. Gure bizitzak beren etekinak baino gehiago balio duelako. Soilik elkarrekin, era bateratu eta erradikalean jokatu, egin ahal izango diogulako aurre gure lana, lan baldintzak, osasuna eta bizitza bera mehatxatzen duen egoerari. Frantzia edo Katalunia aurrera eramaten ari diren mobilizazioek jarraitu beharreko bidea markatzen digute. Baina gainera, krisi egoera honen aurrean, lana eta bizitza osasuntsurako lanaren oreka eta kalitatea funtsezko piezak bezala abiapuntu hartuta, langileen osasuna babesteko errebindikaziorako ildo espezifikoak ezarri behar dugu.

Nagusia den lan ereduak, langileen ezagutza zein autonomia, sormena eta beren lanarekiko kontrolaren ukazioan oinarritu da. Zuri ez dizute pentsatzeagatik ordaintzen!, esaten digute. Enpresek eta zerbitzu publikoek funtziona dezaten nahi badugu, beraien helburuak, lidergo estiloak, komunikazio zein pertsonen interakzioak birplanteatu beharko ditugu. Langileen ezagutza kontutan hartu beharko dugu, beraien lanarekiko autonomia handituz. Teknologia zein prozesuak kontrolatzen dituztenak haiek direla gogoratuz eta definitiboki prebentzio kultura ezarri.

Gaur egungo enpresek zein zerbitzuek pertsonak robotak izango balira bezala erabili dituzte, errepikakorrak diren lanak egitera kondenatuz edo mota guztietako agindu, burokrazia eta oztopoak jarri. Funtzio hau beharrezkoa ez denean pertsona galtuta sentitzen da. Egoera hau saihesteko langileen etengabeko formazioari eta birziklatzeari lehentasuna eman behar zaie. Eta pertsona bat langabeziara joaten denean aski diren prestazio ekonomikoak bermatuta izan behar ditu baita lan etorkizun bat izateko ahalbideratzen duen birziklatzeko aukera bat ere.

Krisia, emakumeak berriz lan merkatutik kanpo uzteko edo lanaldi murriztutako lanaldiaren guettera zigortzeko erabiliko duenik izango da. Honek suposatzen duenarekin: etxeko lanetako eta menpeko pertsonen arduradunak jarraitzen izatera kondenatuta egotea, alegia. Eredu honen aurrean rolen dibertsitatea eta lanen koerantzukizuna pertsona guztientzat defendatu behar ditugu baita ezartzea menpeko pertsonen erraz eskura ditzaketen errekurso publikoak ere. Krisialditik ateratzeko pertsonak nabarmendu behar dira eta ez banketxeak eta oinarrizko zerbitzu publikoak, hau da, hezkuntza, osasuna, adinekoen arreta edota gizarte-bazterketaren kontrako borrokan inbertitu behar da. Modu honetan benetako lana sortuko dugu baita hobeagoa den gizarte bat ere.

Krisiaren aitzakiarekin prebentziorako arautegia parentesi artean gera dadila planteatuko duenik ere izango da, edo derrigorrez bete beharreko gauza izaten jarraitzen utziko duena, zerbait egiten denaren itxura emateko paper pilaketa bat, beti lan baldintzak edo antolatzeke era aldatzera behartzen ez dituzten datu asko sortzen ez direla zainduz. Dinamika honen aurrean, langile guztiei beren segurtasuna eta lan osasuna bermatuz, legeak jasotzen dituen prebentziorako printzipioen aplikazioa defendatu behar dugu atzerapenik gabe. **Gure bizitzak beraien etekinak baino gehiago balio duelako.**

SANTI RUIZ eta AFRIKA JIMENEZ

ESK ETA STEE-EILASeko LAN OSASUN ARDURADUNAK